

Ze funtsezko jarduera egin behar ditugu?

Gure aplikazioa eraginkorra izan dadin, egunero gai desberdinei buruzko galderak sortzea beharrezkoa izango da. Horretarako, kontuan izan behar da ea galderak ondo ulertzen diren. Halaber, aplikazioa kontrolatu eta egunean eraman behar dugu, hau da, aplikazioak arazoak baditu konpontzen saiatzea edo aditu bati esatea. Hortaz gain, jendeak idatzitakoa begiratzea garrantzitsua da. Modu honetan ikusiko dugu ea errespetuz erabiltzen ari diren edo ez eta ez daudela irainik idazten. Gainera, jendearengana iritsi beharko dugu aplikazioak arrakasta puntu bat lor dezan. Sare sozialak (TikTok, Instagram...) tresnatzat hartuko ditugu bideo edota argazkiak igoz aplikazioa zertarako den azaltzeko. Hala ere, ahoz aho azalduko dugu proiektua ikastetxe zein institutuetan. Azken eginkizun garrantzitsu bat erabiltzaileak laguntzea izango da. Honekin dioguna da, email edo telefono bidez zalantzak eta arazoak entzun eta erantzuten saiatuko garela.

